

Irailaren 15ean
URTEAN ZEHARREKO 24. IGANDEA

Agurra

Bere mahaian biltzen gaituen Mesias Jauna izan bedi zuekin!

Sarrerako oharpena

Bekatua eta heriotza garaitu dituen Kristo piztua ospatzen dugu igandero. Bere errukia betierekoa delako eta gugana iristen delako, konfiantza osoz gertura gaitezke mahai honetara. Berak ez du errukizko mezua mundura ekarri bakarrik egin, baizik eta adiskidetu egin gaitu betiko Jainko Aitarekin. Hori ospatzen dugu Mezetan.

Damu-otoitza

Zabal dezagun orain gure bihotza eta gure damua agertuz esker onez har dezagun Jaunaren erruki salbatzailea.

—Jesus Jauna, gugatik gurutzean hil zinena. Erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, heriotza garaituz Aitak piztua. Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, beti gure alde Aitaren ondoan zaudena. Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara

Otoitza

**Diren guztien egile eta nagusi zaren Jainko Jauna,
 begira iezaguzu,
 eta emaguzu bihotz guztiz Zu zerbitzatzea
 zure errukiaren ondasunak irabazi ditzagun.
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,**

Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Ebanjelioko paraboletan argi agertuko zaigu nolakoa den Jainkoa: barkatzailea, errukitsua... Gauzak gaizki doazenean, ezin bota diogu errua Jainkoari, geu baikara eman zaigun askatasuna erabilita geure ekintzen arduradun.

Lehenengo irakurgaia (*Ir [Ex] 32, 7-11. 13-14*)

Exodo liburutik

Egun haietan, Jaunak honela hitz egin zion Moisesi:

«Jaitsi zaitetz menditik; bekatu egin du, zuk Egiptotik ateratako herriak. Berehala okertu dira, Nik erakutsi nien bidetik; urrezko zekor bat egin dute, eta gurtu eta opariak eskaintzen dizkiote, eta esaten dute: "Hau da, Israel, Egiptotik atera zintuen zure jainkoa"».

Eta Jaunak berriro ere Moisesi: «Ikusten dut, herri hau lepagogor dela; utzidazu nire haserrea horien aurka sutzen, honda ditzadan; eta herri handi bat sortuko dut zuregandik».

Moisesek, ordea, honela otoitz egin zion Jaunari, bere Jaungoikoari: «Zergatik sutu behar du, Jauna, zure haserreak, indar handiz eta esku sendoz Egiptotik atera zenuen zure herri honen aurka?

Gogora itzazu zure zerbitzariak, Abraham, Isaak eta Israel, haiei honela zin egin baitzenien zeure buruagatik: "Zuen jatorria zeruko izarrak adina ugarituko dut, eta aipatu dizuedan lurralde guzti hau zuen ondorengoei emango diet, betiko ondare izan dezaten"».

Eta damutu zitzaion Jaunari, bere herriari egin zion zemaiaz.

Erantzun-salmoa (*Sal* 50, 3-4. 12-13. 17 eta 19)

Zuk e - man, Jau - na, ar - nas be - rri. Sor-
tu ni - re - gan bi - hotz gar - bi.

Erruki zakizkit, Jainko, duzun maitasun handiaz,
suntsi ezazu nire makurra zeure amaigabeko errukiaz.
Garbi nazazu zeharo neure hobenetik,
ikus nazazu neure gaiztakeriatik. R/.

Bihotz garbi bat, Jainko, zor ezazu niregan,
arnasa bizkorra berri ezazu nire barnean.
Ez nazazu urrundu zeure aurretik,
zeure arnasa santua ez kendu niri. R/.

Irekiko dizkidazu ezpainok, Jauna,
eta nire ahoak iragarriko du zure gorespena.
Nire oparia, Jainko, bihotz damutua:
ez duzu arbuiatuko, Jainko, '
bihotz damutu eta umildua. R/.

Bigarren irakurgaia (*1 Tm* 1, 12-17)

San Paulo Apostoluak Timoteori

Anaia maite: Eskerrak ematen dizkiot Kristo Jesus gure Jaunari; izan ere, gai egin ninduen, niregan ustea izan zuen eta eginkizun hau nire eskuetan jarri; nahiz eta ni lehenago biraolari izan, erasotzaile eta laidotzaile. Jauna, ordea, errukitu zitzaidan, sinesgabea izanik

ezjakinez egiten bainuen egiten nuena. Eta Jainkoak gainezka isuri zuen bere grazia nire gainera, niri sinesmena eta kristau maitasuna emanaz.

Benetakoa hitza da eta erabat onartzekoa: Jesu Kristo bekatariak salbatzera etorri zela lurrera, eta hauetan aurrenekoa naiz ni. Horregatik, iritsi nuen errukia, Jesu Kristok niregan erakuts zezan lehenengo bere bihotz handia, eta eredu izan nendin Harengan sinetsi eta betiko bizitza iritsiko dutenentzat.

Gizaldien Erregeari, Jaungoiko hilezkor, ikusezin eta bakarrari, aintza eta omena gizaldi eta gizaldietan. Amen.

Aleluia (2 Kor 5, 19a. c)



Jaungoikoa mundua Berekin adiskidetzen ari zen Kristorengan, eta guri eman zigun adiskidetzearen hitza. R/.

Ebanjelioa (Lk 15, 1-32)

Homiliarako argibideak

Aita bidera atera zitzaion eta besarkatu egin zuen

Azken belaunaldietako europar asko “aitaren etxetik urrun” jaio eta bizi dira. Itxura denez, ez dute faltan botatzen aitaren etxea, euren aitona-amonek utzitakoa. Agian, behin edo behin itzuli dira beratara, udan garai batean utzitako herriko etxera itzultzen garen bezala.

Txikitan gustuko genuen, baina aspertzen hasiak gara eta hondartza jendetsuagoak nahi ditugu. Aitaren antzinako etxeaz, **gure ama Elizaz**, gutxi hitz egiten da, eta egin diguna edo egiten jarraitzen duena aurpegiatzeko, ia beti.

Asko hitz egiten da urrundutakoen pastoraltzaz, baina oso pobreak dira emaitzak. Seme hondatzailea bere kabuz itzuli zen etxera (*Lk* 15,1-32). Gaur egun, miraria litzateke hori, ia. Une hartako egoera eta aurrekoa konparatzeko, eta aitaren etxera itzultzea komeni zitzaiola konturatzeko argitasun une bat eduki zuelako itzuli zen. Gaur egungo belaunaldiek ez dute konparatzeko eta erabakitzeke aukerarik; izan ere, “aitaren etxetik kanpo” bizi izan dira beti, eta ez daukate beste modu batera bizitzeko esperientziarik. Desagertu egin da **gutziz bestelakoa den mundu baten nostalgia**. Dimentsio bakarreko mundu hau bakarrik ezagutzen dute, gustuko ez duguna, baina ezabatu egin da beste mundu bat posible den oroitzapena.

Gaur egungo bizimoduak blokeatuta dauka Jainkoaren esperientzia. Ongi, arazorik gabe, bizi direnek ez dute Jainkoaren falta nabaritzen. Gaizki pasatzen ari direnek, bizitza eta agintariak madarikatzen dituzte, eta, agian, baina Jainkoa ere, baina ez zaie okurrizten Harengana itzultzea. Horretarako, euren barruan sartu beharko lukete eta, hori, gero eta zailagoa zaio gaur egungo gizakiari. Kanpora begira bizi da, egungo hutsalakerian galdua. Memoria eta buruan tradizioak dituen bakarrik sar daiteke bere bihotzean eta bizitzen ari denaz jabetu.

Parabolako semeak aita zuen zain. Anaiak, aldiz, ez zuen haren faltarik sumatzen. Gaur egun, urrundu zirenak gero eta indiferenteago dira salbazioari eta Elizari dagokienez. Eliza gero eta kezkatuago dago haiekin, baina ez du haiengana hurbiltzeko modurik aurkitzen. Kristau sekularrak dira, batez ere, kristau gisa bizitzeari utzi diotenekin eten gabeko harremanetan daudenak,

haien artean **fedearikiko interesa** pitz lezaketenak. Ikusten dugu, ordea, hori ez dela gertatzen. Askotan, kristauak indiferente bihurtu direlako besteen fedeari dagokionez, eta, jakin gabe, indiferente bihurtzen dira euren fedeari dagokionez ere. Iragartzen fedea, lekukotzarik ematen ez duena, itzali egiten da azkenean.

Arazo handiena da aitaren etxearen panoramak ez dirudiela oso erakargarria. **Aita-nagusia** izaten jarraitzen duela dirudi, eta seme hondatzaileak askatasuna edukitzeko ihes egin zuen harengandik. Seme-alaba leialen irudiak haientzat ere aita-nagusi izaten jarraitzen duela erakusten du. Urrundu direnak ezer erakargarrik ez aurkitzeko beldur dira, bai eta geratzen zaizkigun gauza atsegin urriak galtzeko beldur ere. Nietzscheren gaitzespena egiten dute: “ez zaituztet oso berpiztuak ikusten”. Kristautasun aspergarri eta letargikoak gutxi du urrundu direnei eskaintzeko.

Aita ona ez da aita-eredua, aita-nagusia bakarrik. **Maitasunaren eta bakearen Jainkoa da**, maitatuak eta babestuak senti gaitzan eman diezaguke bizia. Bere seme-alabek gogoeta egin dezaten egin dezake. Jainkoaren errukiaren esperientziak konbertitu zuen Paulo, Jesusen apostolu izaterako deia jaso zuenean, haren pertsegitzaile zenean, hain zuzen ere (*1 Tim 1,12-17*). Paulok ez zuen sekula halakorik pentsatuko. Horixe bizi dugu geuk ere eukaristiara hurbiltzen garen bakoitzean. Aitak gu guztiontzat, Harekin eta gure anaia-arrebekin adiskidetu izana ospatzeko, prestatu dugun banketean parte hartzen dugu.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: dei egiogun Jainkoaren errukiari eta eska diezaiogun entzun ditzala uste onez egindako otoitzak:

—Elizako arduradun eta zerbitzarien alde: Jaunak bizitza leiala izateko grazia eman diezaien, beraien ministeritzari dagokionez.

- Herrietako arduradunen alde: argitasunez eta arretaz joka dezaten guztien eta bereziki behartsuenen zerbitzuan.
- Gaixo eta ezinduen alde: Jaunak barne-sendotasuna eman diezaien bere minetan itxaropenez bizi daitezten.
- Gure alde, gure etxeko eta adiskideen alde: Jaunak emandako dohain guztiak eskertuz bizi gaitezten beti.

Jainko Jauna, Moisesen otoitzez, Zure maitasunari uko egiten zion herria ez zenuen baztertu; entzun bekatarien alde otoitz egiten duen Moises berriari, Zure Seme Jesu Kristori eta egizu guk ere goza dezagula bekatari bakar bat bihotz-berritzen denean zeruan gozaten den poza. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Jaunartze honen grazia, Jainko Jauna,
gure gorputz-arimen jabe egin dadila,
gure nahiak ez, baizik eta grazia honen indarrak
agindu dezan gure bizitzan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**